

SARSaren birusaren eta saguzarren arteko lotura aurkitu dute

Gizakiarengan ez-ohiko pneumonia eragiten duen birusaren oso antzeko bi aldaera identifikatu dituzte Txinako ferra-saguzarretan Wuhango Biologia Institutuko ikertzaile batzuek gidatutako ikerketan, *Nature* aldizkarian berri eman dutenez.

SARSA eragiten duen koronabirusaren gordailu naturalak saguzarrak izan zitezkeela aspaldi susmatzen zuten ikertzaileek, baina, orain arte Txinan, Europan eta Afrikan identifikatutako aldaerek ez zuten bat egiten gizakia infektatzen duen aldaeraren ezaugarriekin: zehazki, ezin zuten erabili azken horrek baliatzen duen giza errezeptorea zelulak infektatzeko.

Txinako ferra-saguetan identifikatu dituzten bi aldaerek, aldiz, badute

gaitasun hori, eta, horregatik, ikerketaren egileek adierazi dute "saguzarren hipotesiaren" orain arteko froga sendoena dela aurkikuntza.

Birusen laginak saguzarren gorozkietatik jaso dituzte, eta analisi morfologiko eta genetiko bidez identifikatu dituzte bi aldaera berriak. Ikertzaileen esanean, gainera, in vitro egindako atariko probek iradokitzen dute aldaera horiek gaitasuna izango luketela gizakia zuzenean infektatzeko, bitarteko ostalari baten beharrik izan gabe.

SARS birusak eragindako ez-ohiko pneumonia gaitz larria da, eta, pandemia eragiteko gaitasuna du. Horregatik, arreta handiz jarraitzen diote birusaren aldaerei osasun-arduradunek. ●



Txinako ferra-saguzarra, *Rhinolophus sinicus*, gizakia ere infektatzen duen SARSaren birusaren gordailu naturala izan daitekeela uste dute ikertzaileek. ARG.: DR. LIBIAO ZHANG/GUANGDONG ENTOMOLOGIA INSTITUTUA, TXINA HEGOALDEKO MEHATXATUTAKO ANIMALIEN INSTITUTUA.

Larrialdi-komunikazioak hobetzeko ikerketa-egitasmoa abian da

Larrialdi-komunikazioak hobetzeko helburua duen ikerketa-egitasmoa abian jarri du Geryon ikerketa-partzuergoak. Euskal Herriko Unibertsitateak koordinatzen du, eta zazpi ikerketa-talderen parte hartzea du. Larrialdi komunikazioak gaur egungo banda zabalaren zerbitzu aberatsagoekin osatzea dira Geryon ikerketa-egitasmo europarraren helburuak, besteak beste.

Ia edozein lekutatik modu seguruan komunikazioa bermatzea da emergen-


tzia-komunikazioen bereizgarria. Horretarako, irradi-transmisore gogor eta sendoak erabiltzen dituzte eta Tetra izeneko sareez baliatu. Eskaintzen duten informazioa, aldiz, oso mugatua da. Ahotsezko oharrez gain, idatzizko mezu laburrak igor ditzakete. Horrez gain, larrialdi-zerbitzu guztiak ez dute Tetra sare bera erabiltzen, ezta ere irradi-transmisore berdinak. Ondorioz, zerbitzu ezberdinek ezin izaten dute elkarren artean komunikatu.

Telefonia mugikor sareek, bestalde, garapen handia izan dute, eta asko handitu dituzte eskaintzen dituzten zerbitzuak: une honetan jauzi berria emateko prest daude, 4G edo LTE teknologiaren zabalkundea hasi baita.

Geryon proiektuak, beraz, helburu bikoitza du. Alde batetik, larrialdietako zerbitzuen arteko komunikazioa hobetu nahi du, zerbitzu ezberdinen arteko elkarrekintza posible izan dadin, eta, bestetik, larrialdi-komunikazioen ohiko zerbitzuak banda zabalaren zerbitzu aberatsagoekin osatzeko asmoa du.

Helburuak gauzatzeko ez da teknologia ordezkapenik egin behar. Zerbitzu ezberdinen arteko komunikazioa bermatzen dadin, Geryonek proposatzen du gaur egungo komunikazio-sareen gainetik maila gehigarri bat ezartzea. Horrek bideratuko du larrialdi-komunikazioen ezaugarri diren segurtasun eta sendotasuna bermatzea.

Ikerketa-egitasmoaren emaitza 2014. urteko maiatzean prest izatea espero da. Ordurako, eredu bat, prototipo bat, garatuko dute, eta ez dute baztertzeko ondoren, merkatuko garapena izatea. ●



Geryon ikerketa-egitasmoaren lantaldeko kide batzuk. ARG.: LUIS JAUREGIALTZO/ARGAZKI PRESS.